



---

## 01. KONTSIDERAZIO OROKORRAK

---

Plan Orokorraren zehaztapenen dokumentu osagarri gisa eta LLTB-1976ko 25, 42 eta 56. artikuluetan, LLTB-1992ko 124.1, 124.3 eta 133. artikuluetan eta PEko 86 eta 87. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, Errenteriako Udal Mugartean gaur egungo eraikitako elementuen eta espazio eta elementu naturalen zerrenda biltzen duen Katalogoa formulatzen da, euren interes artistiko, kultural, historiko edo naturalistikoa dela-eta babes berezia behar dutenak, euren gain esku-hartze suntsigarri edo hondagarririk ez egiteko moduan.

Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren jada babes berezia izan duten elementu guztiek osatuko dute Katalogo hau, eta beste hainbat elementu gaineratzen ditu, Plan Bereziaren mugaketan zein beste zenbait esparrutan kokaturikoak.

Oro har, Katalogoan barne harturiko elementuek ezin izango dituzte esku-hartze suntsigarri edo hondagarririk izan, eta baimendu ahal izango dira xedetzat eranskinak edo baliorik gabeko elementuak edo haren jatorrizko izaera hutsaltzen dutenak kentzea dutenak. Era berean, haien handitzeak baimendu ahal izango dira, dagokion aplikatzeko araudian ezartzen den moduan, betiere esku-hartzeak haien funtsezko balioak errespetatzen baditu.

Plan Orokorra garatuz Katalogaturiko Ondarea Babesteko Plan Berezia formulatuko da, babesteko araudia ezarriko duena, katalogaturiko elementu bakoitzerako babesteko berriazko neurriak zehaztuz eta zehazki erregulatuz esku-hartze posiblearen parametroak. Horretaz gain, Plan Bereziak katalogaturiko elementuen zerrenda osatu ahal izango du arazoibidean.

Bestalde, 1976ko Lurzoruaren Legeko Testu Bategineko 19. artikulua dionez:

*“Paisajearen babesak ondoko alderdiak bilduko ditu, besteak beste, nazioko lurraldeko leku edo ikuspegi jakinak kontserbatzeko, planeamendu bereziaren xede den aldetik:*

- a. *Edertasun naturalak euren multzo panoramikoan (...)*
- b. *Landa-onibarrak, kokapen, atsegintasun, berezitasun topografiko edo oroitzapen historiko bitxia dutenak.*
- c. *Euren kokapen edo edertasun arkitektonikoa dela-eta nabarmentzen diren eraikin bakanak eta euren edertasuna, antolaera artistikoa, garrantzi historikoa edo bertan bizi diren espezie botanikoen garrantzia dela-eta nabarmentzen diren parke eta lorategiak.*
- d. *Balio tradizionalen multzoa osatzen duten eraikitako perimetroak.”*



## 02. ONURA PUBLIKOKO DEKLARAZIOA

---

Interes historiko-artistikoko eraikin edo elementuen katalogazioak haiek nahitaz kontserbatu, babestu eta zaintzea eskatzen du. Adierazitakoen xedeetatik eratorritako betebeharrak dagozkien jabeek eta Herri Administrazioak, dagokion zatian, hartu beharko dituzte euren gain.



---

### 03.

#### KATALOGOAREN HEDADURA

---

1. Eraikin bat kultur ondasun higiezin gisa inbentarioan sartuz gero, eraikinaren berezkoak ez diren elementuak eta elementu gainjarriak ipintzea debekatuta egongo da, hala nola: iragarkiak, kartelak, banderatxoak, merkataritza-lokalei dagozkienak salbu, baita kableak, zutoinak edo markesinak ere.
2. Aurreko puntuan adierazi diren elementuak, inbentarioan sartutako higiezinetan baldin badaude, ezabatu, eraitsi edo kendu egin beharko dira urtebeteko (1) gehienezko epean, dagokion eraikinaren katalogoa onartzen den egunetik edo Plan Orokorra behin betiko onartzen den egunetik zenbatzen hasita.
3. Kontserbatzeko betebeharrak orokorren ondorioetarako, eraikin bat kultur ondasun higiezin gisa inbentarioan sartuz gero, haren jabeek nahitaez egin beharko dituzte Plan Orokor honek baldintza estetikoetara eta giro-baldintzetara egokitzeko eskatzen dituen obrak, indarrean dagoen legeriak edo etorkizunean onartzen denak ezarritako laguntzak, diru-laguntzak, salbuespenak edo hobariak lortzeko eskubidea galdu gabe, kasu bakoitzean inbentarioan sartzeagatik bereziki ezar daitezkeenak ziurtatuz. Era berean, baldintza horiek lortzeko beharrezko jarduketak sustatu beharko dituzte.



#### 04.

#### **7/1990 LEGEA, EUSKAL KULTUR ONDAREARI BURUZKOA**

7/1990 Legearen zioen azalpenak honela dio: "Euskal kultur ondarea da euskal herriaren nortasun-adierazgarri nagusia eta herri honek mundu osoko kulturari kondairan zehar eman dionaren erakusgarri garrantzitsua. Kultur ondare honen jabe euskal herria da. Kultur ondarea, honen lege jaurpidea eta jabetza dena dela, babestea, aldezea eta aberastea de herri-agintarien iharduneko oinarrizko antolarauetako bat.

Alde honetatik, Euskal Herriko Autonomi Estatutuak Autonomi Elkartearen bakarreango aginpidetzat jotzen ditu Estaduaren jabetzapekoz besteko kultura, kondairitako ondarea eta agirigordetegiak, liburutegiak eta erakustetxeak. Kondaira-Lurraldeen legeak bere aldetik, lurralde horietako foruzko erakundeei kondaira eta artezko, monumentu eta arkeologi-aldeetikako ondarea zaintzeari, hobetzeari, horri bere onean eusteari eta, hala behar izanez gero, hondalanak egiteari buruzkoan legeak osabideratzeko eta egiteratzeko aginpidea eta bere jabetzapeko agirigordetegi, liburutegi eta erakustetxeri buruzkoan bakarreango aginpidea ematen die.

Kultur ondarearen Lege izenez aurkeztu, horrek araupetzen dituen gai guztiak, kondaira-ondarea, agirigordetegiak, liburutegi eta erakustetxeak, barne hartzeko kultura hitza egokiagoa eta balioagarritasun haundiagokoa dela uste izateagatik, eta kultura historia baino adierazpen zabalagoa dela uste izateagatik aurkeztu da, kulturaren barruan historia ere osagai bat gehiago izanik sartzen da eta.

Legearen 2. artikulua honela dio:

- 1.-Duten kondairatikako, artezko, hirigintza, etnografi, zientzi, teknika gizarte-aldeetikako balioagatik kultura-interesgarritasuna izanezko eta, beraz, babes eta aldezpena merezi duten ondasun guztiek osatzen dute kultur ondarea.*
- 2.- Lege honen ondoriotarako, euskal herriko kultur ondarea osatzen dute eta zermugatu eta zerrendatu daitezkeen ondasunak, honako maila hauetakoren baten sailkatu beharko dira:*
  - a) Monumentua: honelakotzat, banan-banan hartuta, nolabaiteko kultura-interesa duten ondasun higigarri zein higiezinako guztiak jotzen dira.*
  - b) Monumentu Maltzoa: honelakotzat, kultura-batasuna osatzen duten ondasun higigarri zein higiezinakoen maltzo guztiak jotzen dira.*
  - c) Kultur gunea: honelakotzat, iraganeko izan eta euskal herriaren kultura eta bizikera-adierazgarri nabariei atxikiriko toki, ekintza sorkuntza sinesmen, tradizio eta gertakariak osatutako jotzen da.*



Bestalde, 4. artikulua dioenez, Lege honen ondorioarako, honako hauek dira gaitasundun erakundeak:

- a. Eusko Jaurlaritza
- b. Foru Aldundiak
- c. Udalak

Azken horiei loturik, 4.2 artikulua honela dio: Udalei dagokie berriaz euskal herriko kondairatikako ondarea osatzen dute eta bakoitzaren udal mugartean kokatutako ondasunen kulturazko balioa goratzeko eta ezagutzera emateko lana. Presako kasuetan, interesgarritasuna arriskuan izan dezaten kondairatikako ondare horretako ondasunei bere onean eusteko beharrezko diren badaezpadako neurriak hartzea ere ba dagokie. Guzti hori, lege honen nahiz legezko beste manuen bidez berriaz agintzen zaizkien egitekoen kaltetan gabe.



---

## 05. KATALOGATU DIREN ELEMENTUEN ZERRENDA

---

Katalogatu diren elementuen zerrenda ondoko eran egituratuta dago:

- 05.1. Monumentu Area: Hirigune Historikoa (14/2000 Dekretua, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailarena).
- 05.2. Monumentu Arean dauden eraikinak: Hirigune Historikoa (14/2000 Dekretua, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailarena).
- 05.3. Kultur Intereseko beste zenbait Ondasun Higiezin
  - Hirigune Historikoa
  - Hiri Eremuak
  - Arkitektura erlijiosoko eraikinak
  - Arkitektura militarreko eraikinak
  - Industria-arkitektura eta -ingeniaritzako eraikinak
  - Landa-arkitektura
- 05.4. Erretaulak
- 05.5. Arkeologia Ondarea
  - Hirigune Historikoa
  - Monumentu Megalitikoak
  - Arkeologia Guneak
- 05.6. Ondare Naturala
  - Babes Zorrotza duten Baso Eremuak
  - Baso Eremu Babestuak
  - Paisaia Interes Handiko Eremuak
  - Formazio Geologikoak: Dolinak
  - Zuhaitz Babestuak

### 05.01. Monumentu Area: Hirigune Historikoa

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak, maiatzaren 7ko 101/1996 Dekretuaren bitartez (1996ko maiatzaren 28ko EHAA) Errenteriako Hirigune Historikoa Kultura Ondasun gisa Monumentu Multzoz izendapenez kalifikatu zuen, hura zaintzeko babes arauak ezarriz.

Gainera, urtarrilaren 25eko 14/2000 Dekretuaren bitartez (2000ko otsailaren 11ko EHAA) Donejakue Bidea Monumentu Multzoz izendapenez, Kultura Ondasun gisa sailkatu zuen, EAEan bi ibilbide bereiziz: Kostaldeko Bidea eta Barruko Aldeko Bidea. Errenteriako udalerria



horietako lehenengoan barne hartuta dago, Hirigune Historikoa eta Magdalena Andre Mariaren basilika aipatzen direlarik.

7/1990 Legearen 10. artikulua honela dio:

*"1.- Euskal kultur ondareko ondasunak izan eta, duten garrantzi edo berebiziko balioagatik, babestea herri-zuduzko izan eta berriaz horrela erabaki dadinekoak joko dira zermugatutako kultur ondasuntzat.*

*2.- Honelakoetan, multzoaren osagarri bakoitzaren berriazkotasuna nahitaez aldarrikatu beharrik gabe, multzo osoarena aldarrikatzea aski izango da."*

#### **05.02. Monumentu Areak dauden eraikinak: Hirigune Historikoa**

101/1996 Dekretuan, muge barruko elementu higiezinetakako bakoitza aipatzen da, kategoria edo babes-maila ezberdinetan sailkatuz:

- Babes berezia duten elementuak
- Erdi mailako babesak duten elementuak
- Oinarrizko babesak duten elementuak
- Elementu ordezkarriak
- Bat ez datozen elementuak
- Hiri eremuak

#### **Babes berezia duten elementuak**

Apartekoak izan eta, arkitektura, arte, historia edo kultura aldetik berebiziko balioa edukitzeagatik, kalifikatutako kultura ondare mailako monumentu izendatu diren eraikin eta herri-ondasunak jotzen dira babes berezia merezi duten ondasuntzat, baita aipatutako maila horretan kalifika litezkeenak ere. 101/1996 Dekretuan ondoko elementuak zerrendatzen dira (l. zerrenda):

B01SG01	Jasokundeko Andre Mariaren Parroki Eliza
A02SG01a	Udaletxea
B04UE09	Santa Klara kaleko 1 zenbakian dagoen eraikina (Zubiaurre Jauregia)



B05UE01 Orereta kaleko 7 zenbakian dagoen eta Goiko kaleko 11 zenbakian dagoen eraikina (Torrekua)

B07UE11 Goiko kaleko 24 zenbakian dagoen eraikina (Morrontxo)

#### **Erdi mailako babesa duten elementuak**

Erdi mailako babesa behar duten elementuen artean, inbentariatutako ondasuntzat hartutako monumentuak daude; baita, inguruaren itxuran garrantzi handia izateaz gainera, euskal kultura ondarearen osagai izan eta horretarako balio nahikoa duten elementuak ere.

101/1996 Dekretuan ondoko elementuak zerrendatzen dira (II. zerrenda):

B06UE04 Eliza kaleko 8 zenbakian dagoen eraikina

B02UE22 Eliza kaleko 21 zenbakian dagoen eraikina

B05UE02 Orereta kaleko 5 zenbakian dagoen eraikina

B06UE04 Goiko kaleko 9 zenbakian dagoen eraikina

A01UE05 Kapitanenea kaleko 4 zenbakian dagoen eraikina

A01SG06 Kapitanenea kaleko 6 zenbakian dagoen eraikina

A03UE02 Andra Mari kaleko 3 zenbakian dagoen eraikina

#### **Oinarrizko babesa duten elementuak**

Arkitektura, historia edo artearen aldetik balio nabarmenekoak izan gabe, tipologiari edo inguruari begiratuta ondare eraikinaren zati interesgarria osatzen duten elementuak izango dira babes maila honetan sailkatuko direnak.

101/1996 Dekretuan ondoko elementuak zerrendatzen dira (III. zerrenda):

A01UE04 Kapitanenea kaleko 2 zenbakian dagoen eraikina

A02SG01b Kapitanenea kaleko 3 zenbakian dagoen eraikina (Udaletxearen 1. zabalkuntza)

A02UE03 Andra Mari kaleko 2 zenbakian dagoen eraikina (Udaletxearen 2. zabalkuntza)



A02UE04	Andra Mari kaleko 6 zenbakian dagoen eraikina
A02UE08	Andra Mari kaleko 14 zenbakian dagoen eraikina
A03UE01	Andra Mari kaleko 1 zenbakian dagoen eraikina
A04UE11	Santsoenea kaleko 19 zenbakian dagoen eraikina (behe-oina)
A06UE02	Santsoenea kaleko 31 zenbakian dagoen eraikina
A06UE04	Kapitanenea kaleko 17 zenbakian dagoen eraikina
A07UE02	Kapitanenea kaleko 12 zenbakian dagoen eraikina
A07UE04	Kapitanenea kaleko 16 zenbakian dagoen eraikina
A07UE05	Kapitanenea kaleko 18 zenbakian dagoen eraikina
B02UE01	Eliza kaleko 1 zenbakian dagoen eraikina
B02UE04	Eliza kaleko 3 zenbakian dagoen eraikina
B02UE06	Eliza kaleko 7 zenbakian dagoen eraikina
B02UE07	Eliza kaleko 9 zenbakian dagoen eraikina
B02UE08	Eliza kaleko 11 zenbakian dagoen eraikina
B02UE09	Eliza kaleko 13 zenbakian dagoen eraikina
B02UE09	Erdiko kaleko 16 zenbakian dagoen eraikina
B02UE10	Eliza kaleko 15 zenbakian dagoen eraikina
B02UE14	Erdiko kaleko 26 zenbakian dagoen eraikina
B02UE15	Erdiko kaleko 28 zenbakian dagoen eraikina
B02UE16	Erdiko kaleko 30 zenbakian dagoen eraikina (behe-oina)
B02UE20	Eliza kaleko 25 zenbakian dagoen eraikina
B02UE21	Eliza kaleko 23 zenbakian dagoen eraikina
B02UE23	Eliza kaleko 19 zenbakian dagoen eraikina



B03UE01	Beheko kaleko 2 zenbakian dagoen eraikina
B03UE02	Erdiko kaleko 3 zenbakian dagoen eraikina
B03UE03	Erdiko kaleko 5 zenbakian dagoen eraikina
B03UE04	Erdiko kaleko 7 zenbakian dagoen eraikina
B03UE05	Erdiko kaleko 9 zenbakian dagoen eraikina
B03UE06	Erdiko kaleko 11 zenbakian dagoen eraikina
B03UE10	Beheko kaleko 20 zenbakian dagoen eraikina
B04UE05	Beheko kaleko 9 zenbakian dagoen eraikina (behe-oina)
B07UE01	Goiko kaleko 4 zenbakian dagoen eraikina
B07UE03	Goiko kaleko 8 zenbakian dagoen eraikina (behe-oina) <sup>1</sup>
B07UE09	Goiko kaleko 20 zenbakian dagoen eraikina
B07UE10	Goiko kaleko 22 zenbakian dagoen eraikina

### 05.03. Kultur Intereseko beste zenbait Ondasun Higiezin

#### Hirigune Historikoa

Hirigune Historikoaren barruan, baina 101/1996 Dekretuko zerrendetan barne hartu gabe egonik, ondokoa aipatu beharra dago:

B01UE03	Madalen kaleko 3 zenbakian dagoen eraikina
---------	--

14/01 EUaren barruan: Hirigune Historikoan baina 101/1996 Dekretuak mugatutako eremutik kanpo, ondoko higiezinak aipatu behar dira:

A02UE05	Andra Mari kaleko 8 zenbakian dagoen eraikina
A02UE07	Andra Mari kaleko 12 zenbakian dagoen eraikina
A04UE07	Santsoenea kaleko 11 zenbakian dagoen eraikina

---

<sup>1</sup> 101/1996Dekretoak Goiko Kaleko 6 zkia adierazten du (behe solairua)



A04UE08	Santsoenea kaleko 13 zenbakian dagoen eraikina
A04UE13	Santsoenea kaleko 23 zenbakian dagoen eraikina
A04UE14	Santsoenea kaleko 25 zenbakian dagoen eraikina
A06UE01	Santsoenea kaleko 27-29 zenbakietako eraikina
A07UE03	Kapitanenea kaleko 14 zenbakian dagoen eraikina
A07UE08	Kapitanenea kaleko 24 zenbakian dagoen eraikina
B04UE02	Beheko kaleko 3 zenbakian dagoen eraikina
B04UE03	Beheko kaleko 5 zenbakian dagoen eraikina
B07UE04	Goiko kaleko 10 zenbakian dagoen eraikina
B07UE05	Goiko kaleko 12 zenbakian dagoen eraikina
B07UE07	Goiko kaleko 16 zenbakian dagoen eraikina
B07UE08	Goiko kaleko 18 zenbakian dagoen eraikina
C01UE05	Madalen kaleko 18 zenbakian dagoen eraikina
C01SG10	Madalen kaleko 32 zenbakian dagoen eraikina (Xenpelar Etxea)
C01UE12	Madalen kaleko 36 zenbakian dagoen eraikina
C01UE24	Foru Plazako 21 zenbakian dagoen eraikina
D01SG01	Magdalena Andre Mariaren basilika (14/2000 Dekretuko 4. zerrendan, "Kostaldekoko Bidea", barne hartutako eraikina, Oinarrizko Babesean)

#### Hiri Eremuak

0701	Alabergako auzoa
------	------------------

#### Arkitektura erlijiosoko eraikinak

1401	Gaztelutxoko Hilerri Zaharra
2201	Ama Agustindarren komentua
3001	Zamalbideko Ermita



### Arkitektura militarreko eraikinak

AM01	San Markos Gotorlekua
AM02	Txoritokietako Gotorlekua
3601	Arramendiko Gotorlekua

### Industria-arkitektura eta -ingeniaritzako eraikinak

1402	ET/FVren trenbidearen bidezubia (Madalena eta Maria de Lezo kaleak)
1501	Udal Hiltegi Zaharra
1901	Papelerako Zubia
3701	Fanderiako Errota eta Kanala
3702	ET/FVren trenbidearen bidezubia (Fanderia)
4101	Loidiko Zubia

### Landa-arkitektura

AR01	Errenteriako Benta Baseria
AR02	Isturitzagabekoa Baseria
5801	Palaziozarra Baseria
AR03	Txirrita Baseria
2202	Etxeberri Baseria
3002	Zamalbide Baseria
4102	Loidi Baseria
4401	Pokopandegi Baseria
4501	Añabitarte Baseria
5601	Tobar Baseria



#### 05.04. Erretaulak

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak EAeko hainbat erretaula Kultur Ondasun Monumentu izendapenez kalifikatu zituen, abenduaren 19ko 273/2000 Dekretuaren bidez (2001eko urtarrilaren 11ko EHAA). Errenteriako udal-barrutian, bi erretaula daude, biak Andre Mari parrokia-elizan daude; hauek dira:

1403	Jasokundeko Andre Mariaren erretaula
1404	Erretaula Nagusia

#### 05.05. Arkeologia Ondarea

##### Hirigune Historikoa

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak Errenteriako Hirigune Historikoaren esparru arkeologikoa euskal kultur ondarearen inbentario orokorrean Monumentu Multzo izendapenez Kultur Ondare sartu zuen, otsailaren 12ko Aginduaren bidez (1998ko martxoaren 26ko EHAA).

Agindu hartan, sailburuak erabaki zuen "Errenteriako Udalari esparru arkeologiko hori babesteko, bere udal-hirigintzako planeamendu tresnan kontuan hartzea eskatzea, Euskal Kultur ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 44.2 artikuluan ezarritako betetzeko."

##### Monumentu megalitikoak

Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauden estazio megalitikoak, banan-banan, Monumentu Multzo izendapenez, sailkatutako Kultur Ondasun deklaratzeko prozedurari hasiera eman zion, 2000ko maiatzaren 19ko Ebazpenaren bidez (2000ko ekainaren 12ko EHAA); estazio megalitiko horiek Ebazpenaren I. Eranskinean zerrendatutakoak dira. Gero, Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak espedientea jendaurrean jartzeko epea ireki zuen, 2001eko otsailaren 5eko Ebazpenaren bidez (2001eko martxoaren 5eko EHAA).

Ondoko elementuak katalogatzen dira:

- Igoin-Akolako Estazio Megalitikoa
  - MM01      Langagorriko kutxa
- Txoritokietako Estazio Megalitikoa
  - MM02      Aitzetako Txabalako trikuharria



MM03	Berrozpin I trikuharria
MM04	Berrozpin II trikuharria
MM05	Berrozpin III trikuharria
MM06	Txoritokietako iruinaria

### Arkeologia Guneak

ZA01	Aitzbitarte III kobazuloa
ZA02	Aitzbitarte IV kobazuloa
ZA03	Aitzbitarte V kobazuloa

### 05.06. Ondare Naturala

#### Babes Zorrotza duten Baso Eremuak

Eremu horietako ekosistemen eta balio biologikoen kalitatea bikaina da, autonomia erkidegoetako eta komunitateko araudi ezberdinetan babestuta dauden landaredi, fauna eta habitat naturaletako elementuak barne hartzen dituzte, eta horrexegatik daude katalogatuta babes-erregimen gorenean. Antzina gure lurraldean zeuden baso naturalen antzekoenak dira.

Eremu horien xede bakarra natura eta aniztasun biologikoa kontserbatzea eta bertako baso-sistemei loturiko landaredia eta fauna zaindu eta lehengoratztea da. Inbentarioan lau eremu sartu dira:

FE01	Añarbeko herri-basoko Pagadiak, "epifitotan aberatsak diren Ilex eta Taxus-ekin (Ilici-Fagion)"
FE02	Añarbeko herri-basoko haritz pedunkulatuko hariztiak
FE03	Aizpitarateko Baso Mistoa
FE04	Txoritokietako Baso Mistoa

#### Baso Eremu Babestuak

Ongi kontserbatuta daudelako eta interes biologiko handiko ekosistemak barne hatzen dituztelako babes berezia merezi duten basoak dira. Aurrekoa baino erregimen erregulatzaile txikiagoa dagokie, lehendik aiputakoa babes goreneko erregimena baita.



Eremu horien xedea lurzorua babestea eta bertako basoak kontserbatu eta lehengoratzea da, eta Lurraldeko Egitura Orokor eta Organikoari dagozkion eraikinak edo instalazioak ezartzeko lanak baimenduta daude.

Suntsitzen diren "Baso Eremu Babestuak" -nahi gabe suntsitu badira ere- euren jabeek lehengoratu beharko dituzte katalogoan duten kategoriaren ezaugarriekin. Edozein eraikin egin nahi bada finka horietan, beti ere "Baso Eremu Babestua" ukitu gabe, beharrezkoak diren lehengoratze-neurriak hartu beharko dira.

FP01            Antxulo erretenaren arroko basotxo autoktonoak

### **Paisaia Interes Handiko Eremuak**

Paisaia naturaletan kalitate handia duten, ikusgarritasun handiko arroetan dauden edo erraz suntsi daitezkeen eremuak dira. Aiako Harriko Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketarako Plan Eraentzailearen zati arautzailea onartzen duen apirilaren 16ko Dekretuak, Errenteriarri dagokionez ondoko paisaia bereziak barne hartzen ditu:

- Parke Naturaleko gailurrak Babesteko Eremuak.
- Añarbeko Zirkoa.
- Igoin-Akolako Estazio Megalitikoa.
- Ikusgarritasun handiko beste zenbait zona.

Lehenengo Errenterriako mendirik garaiena den Zariari loturik dago. Añarbeko zirkoak Añarbe ibaiaren azpiarro hidrografikoa barne hartzen du, herriko hegoaldean. Ikusgarritasun handiko eremuen artean maila apalagokoak dien baina arro ikusgarri sentsibleetan kokatuta dauden gailurrak daude, ikustoki askotatik ikus daitezkeelako.

"Paisaia Interes Handiko Eremuetan" Udal Administrazioak paisaia kudeatu beharko du, erabilera eta jarduera ezberdinak babes-erregimen berezi baten menpe egon daitezkeen, eta obra eta jarduera-lizentzien jabeek kokapen-alternatiba ezberdinak aztertu beharko dituzte, arro bisual nagusian inpakturik txikiena sortzen duena aukeratuz, edota beste eremu batera lekualdatuz.



Udaleko Zerbitzu Teknikoek paisaia naturaletan eragin negatiboa gutxitzeko neurri zuzentzaile bereziak ezarriko dituzte. Katalogoan ondoko eremu hauek barne hartzen dira (zortzi):

IP01	Zaria mendiaren gailurra eta hegala.
IP02	Añarbeko Zirkoa
IP03	Igoi-Akolako Estazio Megalitikoa
IP04	Urdaburu mendiaren gailurra eta hegala
IP05	Aldura mendiaren gailurra eta hegala
IP06	Aizpitarte mendiaren gailurra eta hegala
IP07	San Markos mendiaren hegala
IP08	Txoritokieta mendiaren hegala

#### **Formazio Geologikoak: Dolinak**

Kare-harrizko lurzorutan kokatuta dauden eta dinamika karstikoari loturik dauden higadura-prozesutan sortu diren formazio geologikoak dira. Geomorfologikoki, luraren hondoraketak dira, drainadura hidriko propioa duten arro autonomoak eratuz, hau da, hartzen dituzten urak ez ditu alboko arro hidrlogiko batek jasotzen, lurpean zehar doazen akuiferoetarantz zurgatzen baitira.

San Markos eta Txoritokietako eremuetako paisaia naturaleko elementu nabarmenak dira. Lau dolina barne hartzen dira ondoko inguru hauei loturik:

FG01	Eguzkiborda
FG02	Arkiri
FG03	Aitzondo
FG04	Ondartxulo

#### **Zuhaitz Babestuak**

Ezaugarri nabarmenen batengatik (neurria, adina, itxura, berezitasuna, historia, edertasuna, bakantasuna, egoera edota eskusibotasuna) bereziki babestu behar diren zuhaitz edo zuhaixkak dira.



Horrela katalogatzen diren zuhaitzak ezin dira moztu, eta udalaren baimena ezinbestekoa izango da horiek mozteko edo beste edozein tratamendu edo esku-hartze burutzeko. Lehenik eta behin, ondoko espezieetako zuhaitz bereziak katalogatu dira:

- 07. Area: Alaberga

- 0702 Atlasko zedroa (*Cedrus atlantica*)
- 0703 Zumarra (*Ulmus minor*)
- 0704 Haritz kandudunen multzoa (*Quercus robur*)

- 09. Area: Galtzaraborda-Ekialdea

- 0901 Magnolia (*Magnolia glandiflora* "Ferruginea")
- 0902 Magnolia (*Magnolia glandiflora* "Lanceolata")

- 10. Area: Galtzaraborda Mendebaldea

- 1001 Idi-bihotz arbola (*Liriodendron tulipifera*)

- 14. Area: Erdialdea

- 1405 Zumarra (*Ulmus minor* "Pendula")
- 1406 Nekosta (*Cupressus sempervirens*)

- 20. Area: Gabierrota

- 2001 Itzaleko platanoa (*Platanus hispanica*)
- 2002 Itzaleko platanoa (*Platanus hispanica*)
- 2003 Xarma (*Carpinus betulus*)
- 2004 Xarma (*Carpinus betulus*)

- 22. Area: Agustinak:

- 2203 Himalaiako zedroen multzoa (*Cedrus deodara*)
- 2204 Atlasko zedroen multzoa (*Cedrus atlantica*)



- 2205            Zumarra (*Ulmus minor*)
- 2206            Itzaleko platanoa (*Platanus hispanica*)
- 37. Area: Fanderia
  - 3702            Magnolia (*Magnolia glandiflora*)
- 39. Sektorea: Lartzabal
  - 3901            Pago gorria (*Fagus sylvatica* "Purpurea")
  - 3902            Pago gorria (*Fagus sylvatica* "Purpurea")
- 45. Sektorea: Añabitarte
  - 4501            Belabaratzeko haritz kanduduna (*Quercus robur*)